

Santurtzin, 2018ko abenduaren 4ean, asteartea.

Kaixo Olentzero:

Ni txori bat naiz eta azaroaren 23tik abenduaren 3arte hegan nengoen Patronato Santa Eulalia ikastetxetik. Ikusi dut Euskaraldia ospatzen ari zirela. Ikusi ditut denek txartela bat zeramatela. Batzuk aho bizi txapa zeramaten eta beste batzuk belarri prest txapa. Ikusi dut oso ondo pasatzen ari zirela abesti asko kantatzen. Badirudi asko gustatzen zaiela euskeraz hitz egitea. Gainera, batzuk nahiz eta euskera ez jakin saiatzen ziren.

Badirudi oso dibertigarria izan dela, umea batzuk dantzan zeuden, beste batzuk abesten, beste batzuk jolasten eta nozki euskeraz hitz egiten. Nik badakit zuri euskeraz hitz egitea gustatzen zaizula baina ere bai dakit ume asko daudela, euskera ez dakitenak beste herrietatik etorri direlako. Horregatik nahi nuke Euskaraldia inoiz ez bukatzea. Horrela neska mutil horiek hobeto eta azkarrago ikasi ahal izango dute.

Musu handi handi bat.